

# 2017ko ABENDUAREN 11ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua, 2017ko abenduaren 11n arratseko 7 orenetan Herriko Etxean bildu da, Christian DEVEZE, lehen axuant Jaunaren lehendakaritza pean.

Hor dira: Christian Devèze Jn, Eliane Noblia And, Frédéric Bardin Jn, Pascale Lespade And, Didier Irastorza Jn, Eliane Aizpuru And, Henri Saint Jean Jn, Anne-Marie Pontacq And, axuantak, Vincent Goytino Jn, Christiane Hargain-Despéries And, Patrice Dor Jn, Yolande Huguenard And, Argitxu Hirigoyen And, Jean-Noël Magis Jn, Corinne Othatceguy And, Peio Etchelecu Jn, Maryannick Hirigoyen And, Roger Barbier Jn, Pascal Bourguet Jn, Véronique Larronde And, Argitxu Hiriart-Urruty And, Philippe Bacardatz Jn, Nathalie Aïcaguerre And, Amaia Beyrie And herriko kontseilariak.

Eskas edo barkatuak: Bernadette Jougleux Auzapez And, Vincent Bru Jn, Jean-Jacques Lassus Jn, Carmen Gonzalez And, Camille Jenvrin Jn, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Bernadette Jougleux Andereak Christian Devèze Jaunari, Vincent Bru Jaunak Eliane Noblia Andereari, Jean-Jacques Lassus Jaunak Jean-Noël Magis Jaunari, Carmen Gonzalez andereak Christiane Hargain-Despéries Andereari, Camille Jenvrin Jaunak Didier Irastorza Jaunari.

## 1 – Saioko idazkariaren izendatzea

Argitxu Hirigoioren saioko idazkari izateko hautagai da. Nathalie Aïcaguerrek ere bere hautagaitza aurkeztu du.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aïcaguerre Andereak idazkari bat baino gehiago izenda daitekeela zehaztu du.

Devèze Jaunak bakarra izendatzeko aukera ere badela ihardetsi dio.

Hogeita lau Argitxu Hirigoioren hautagaitzaren, alde agertu dira eta lau Nathalie Aïcaguerre Anderearen alde.

Devèze Jaunak saioko bi idazkari izanen direla adierazi du, behar bada pizu desberdina ukanen dutenak, baina biltzarraren ibilmolde araua errespetarazteko ahalegina egingen duela.

Devèze Jaunak, hasi aitzineko hitz batzuez abiatu du saioa.

Lehenik, eta aipagaietan agertzen diren gaiak aztertzeraz pasatu aitzin, bi aste lehenago Noblia Andereak egin bezala saioaren lehendakaritza berak bermatzearen arrazoia, Bernadette Jougleux auzapez anderea zeregin hori bete ezinean delako dela zehaztu du. Gehiengoko taldeko kideak harekin harremanetan dira, hein batean. Bere osasun egoerari buruzko xehetasunek ez dute onera edo txarrera doanaren zehaztasunik ematen. Duela lau aste artatua

dela eta, teorikoki, beste bosgarren edo seigarren aste batez hola izan beharko luke. Tratamendua finitzean baizik ezingo du honen onuraz gozatu.

Kanbo herriaren zuzendaritzaren antolaketari dagokionez, gobernantzan bakantzarik ez dela jakinarazi nahi die herritarrei. Auzapez Andereak bermatzen dituek egitekoak herriko etxeko kideen artean partekatu dira, eta baita harago ere. Auzapeza itzultzeko denboran, zerbitzuak antolatuak dira.

Ondotik, Devèze Jaunak Eliane Aizpururen aita zenaren Edouard Aizpuru Jaunaren heriotza aipatu du. Herriko etxeko biltzarreko kide batzuek Eliane nahigabe horretan lagundu dute, beste nahigabe bati gehitzen zaiona gainera, izan ere egun batzuk lehenago bere senarraren familiako kide bat zendu baitzen. Devèze Jauna Elianen aitaren ehorzketetan ez zen presente izan baina bere izenean, eta baita Herriko Kontseiluaren izenean ere, doluminak eman nahi dizkio. Azkenik, Devèze Jaunak ezin du Peyuko Duhart, Donibane Lohizuneko Auzapez eta Euskal Hirigune Elkargoko lehen lehendakariorde zenaren heriotza aipatu gabe utzi. Esperientzia handiko gizona, kortsarioen herrian aitortu zitzaion karisma handikoa, horren adierazle haren ehorzketetan zen jendetza, zeinean Devèze jaunak berak parte hartu zuen. Bestalde, igandean, Irastorza Jaunarekin haien eta Kanbo Herriko Kontseilu osoaren izenean, lehenik familiari, baina baita donibandar guzietan ere, Donibane Lohizuneko herriko etxera doluminak ematera joan zirela adierazi du.

## **2 – Aitzineko saioko bilkura agiriaren onartzea**

Devèze Jaunak, 2017ko azaroaren 27an iragan zen azken saioari buruzko oharrik baduten galdegin die Herriko Kontseiluko kideei. Oharrik ez duela jaso adierazi du.

Aïcaguerre Andereak, Auzapez Anderea hor ez den arteko herriko etxearen antolaketari buruzko galdera pausatu du. Gehiengoko kideek lana partekatu dute baina barne araudiak dio galdeak Auzapezari egin behar zaizkiola. Azken hau hor ez den artean, galdeak nori zuzendu behar zaizkion jakin nahi luke.

Devèze Jaunak erantzun dio Jougleux Andereak hari zuzenduriko gutunak jasotzen dituela eta ondotik tratatzen direla.

Hiriart-Urruti Andereak bitartekaritza nork bermatzen duen jakin nahi luke. Printzipioz, egitekoak partekatuak izan dira, baina Auzapeza ikusi nahi duen Kanboar arruntak nor ikusten du?

Devèze jaunak oroitarazi du ez dela gobernantza hutsunerik. Egitekoak, bakoitzak herriko etxearen baitan duen funtzioaren arabera partekatu dira. Arazo handiei dagokionez, automatikoki Auzapezari helarazten zaizkio.

Peio Etchelecu jauna gelan sartu da.

Devèze Jaunak aitzineko saioko bilkura agiriaren onarpena bozkatzera deitu du.

Hiriart-Urruti Andereak dio oposizioko taldea onarpenaren aurka agertzen dela eta horren azalpena eman nahi duela. Aitzineko astean, bere taldeak aitzineko Herriko Kontseiluaren grabaketa eskuratzeko galdea egin zuen, hartan gai bereziki garrantzitsua agertzen baitzen, hots, THPa. Galde hori errefusatua izan zaio. Ondorioz, oposizioko kideek

ezin dute jaso duten berrogeita zazpi orrialdeko bilkura agiri hori entzun gabe ontzat eman. Gainera, iragan ostiralean baizik ez zen helarazi, barne araudiak Herriko Kontseilua iragan eta zortzi egunen barnean helarazi behar dela diolarik. Hiriart-Urruti Andereak zehaztu du bere taldeko kide bat aste horretan berean herriko etxera joanen dela grabaketa entzutera.

Devèze jaunak erantzun dio, zerbitzuak biziki hartuak izan direla, 2018ko urtarrilaren 1erako Euskal Hirigune Elkargoak bere gain hartu behar dituen saneamenduaren eskuduntzarekin besteak beste. THPa ere, ondoko abenduaren 16ko EHEko elkargoko Kontseilua bildu aitzin onartu behar zen. Egia da oposizioak, beste edonork bezala, dokumentu horiek eskuragarri ukan behar dituela baina, kasu zehatz honetan, Herriko Kontseilu bat azaroaren 27an izanik eta ondokoa egun honetan, denek onar genezake zaila dela, idatziz ezartzeko ardura duen idazkariarendako, THParen onarpena bezain garrantzizko elementuak edo abantzu aurrekontu gehigarritzat jo daitezkeen aurrekontu aldagarrien erabakien idazketa lan hori denbora horretan egitea. Ez zen neholako oztopatzeko xederik, azken saioko deliberoak idazteko izan ez den denbora arazo bat baizik.

Hartara, Devèze Jaunak, zehaztasun guziak eta gehiago biltzen dituen berrogeita zazpi orrialdeko bilkura agiri batek sinplifikatzea merezi lukeela gehitu du. Auzapez Andereak kargua hartu zuelarik, gai horretan, herriak, sinplifikatze aldera joko zuela zehaztu zuela ere gehitu du. Herriarteko sindikatu guzietan zein Hirigune Elkargoetan, bilkura agiriak ez dira zehatz zehazki idatziak. Devèze Jaunak deritzo, bilkura agirietan sintesia nozio bat sartu beharko dela, baina gai hori Herriko Kontseiluan eztabaidatu beharko dela, barne araudiko neurri batzuen hobetzearekin egin beharko den bezala, batzordeen deialdi, epe edo bilkura tenoreekin adibidez, lan egiten dutenek errazkiago parte hartzeko parada ukan dezaten.

Hiriart-Urruti Andereak zehaztu nahi du, herri batzuetan Herriko Kontseiluko grabaketa herriko etxeko webgunean ezartzen dela, eta horren ondorioz edonork entzun dezakeela. Kanborendako gauza ona litzateke behar bada.

Devèze Jaunak dio hori zuhurtzia handiz aipatu beharreko beste gai bat dela. Egia da, agintaldi hastapenean, Herriko Kontseiluak eztabaiden grabaketa egiteko aukera onartu zuela. Haren ustez, Herriko Kontseiluaren delibero hartzearen eta honen bilkura agiria onarpenaren arteko denbora tartean grabaketa eskuragarri ukaitea ezinezkoa da. Haatik, behin bilkura agiria onarturik, eztabaidaren emaitza ez kontsultatu ahal izatea ez da nehoen intereserako. Bilkura agiri baten onarpenari begira, prestaketa arazo bat bada hor, jakinez Kanbo bezalako herri bat, administrazio zerbitzu trebea ukanik ere, ez dela hiri handiak bezain ontsa hornitua. Ondorioz, Kontseiluaren iragaita eta honen onarpenaren arteko denbora tarte horretan, grabaketa entzuteko herriko kontseilarien esku uztea konplikatu gertatzen da, bilkura agiria egiteko ardura duten zerbitzuek etengabe baliatzen baitute. Iritzi osagarri gisa, herriak Administrazio Dokumentuen Eskuragarritasunerako Batzordearengana (frantsesez CADA) jo du, denbora tarte horretan, grabaketaren eskura uzteari dagokionez, herriaren jarrera zein izan behar den jakiteko. Azken honek eskura uztea bilkura agiria onarpenaren ondotik derrigorrezkoa dela baieztatu du. Bilkura agiria onarpenaren ondotik grabaketa webgunean ezartzeko posibilitatea aztertua izanen da.

Bardin Jaunak, bilkura agiri hori idatzi duen pertsonak batzuetan eguneko hamalau orenez lan egin duela eta berrogeita zazpi orrialde ez direla eriak klaskatuz egiten zehaztu du. Lan horretarako denbora biziki guti zuen, eta ez balu Kontseiluaren grabaketarik ezingo zukeen idatzi. Arrazoi horrengatik ere, ondorioz, zuen esku uztea zaila zen.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Aurkako bozka Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak, Amaia Beyrie Andereak eman dute.

### 3 – Arnaga: parkearen segurtatzea

Pontacq Andereak oroitarazi du, 2013ko urtarrilaren 28ko Herriko Kontseiluko delibero bidez, Arnagako eremu arbolatsuaren segurtatze lanen aditu segimendua eta obralaritza, Forêt Conseils sozietateko Perrin jaunari esleitu zitzaizkiola lau urterako.

2013an eginiko estimatzeari jarraikiz, 2013ko irailean, Herriak, beharren arabera hitzarturiko merkatu bidez, urteroko zuhaitzen segurtatze eta prebentzio lanen programa abian eman zuen hiru urteko iraupenerako, hots, 2014tik 2016ra. Merkatua “Après de mon arbre” enpresari esleitu zitzaion.

2016ko abenduaren 26ko delibero bidez, Herriko Kontseiluak 2017ko lanen programa ontzat jo zuen, “Après de mon arbre” sozietatearekin izenpeturiko beharren arabeko merkatua urte batez luzatuz.

Lau obra zati egin dira:

<b>Herriko kontseiluaren deliberoa (Data)</b>	<b>Lanen gauzatze data</b>	<b>Segurtatze lanen zenbatekoa</b>	<b>Orotariko zenbatekoa (estimatzera, obralaritza eta lanak)</b>
2014ko martxoaren 3a	2014	Zegarik gabeko (ZG) 28.150 € (zeinetarik ZG 15.173 € 2014ko obra zatiarendako)	ZG 39.693,00 €
2015eko apirilaren 13a	2015	ZG 14.185 €	ZG 18.445,91 €
2015eko azaroaren 30a	2016	ZG 12.800 €	ZG 16.523,00 €
2016ko abenduaren 26a	2017	ZG 16.770 €	ZG 20.874,70 €

Lan horiek %40ean DRAC Aquitaineak eta %25ean Pirinio Atlantikoetako Departamenduak diruztatzen dituzte, ondarearen hitzarmenaren baitan.

Arnaga etxeko Parkeko zuhaitzen segurtatze eta prebentzio politika horren baitan (orotara 522 estimazio eginak) eta DRACak ontzat emaniko Parkeko zuhaitzen urte anitzeko segimendu planarekin bat eginez, Perrin jaunari 2018 urterako segurtatze lan fase berri bat programa dezan galdegina izan zaio. Honek proposatu du:

- Batetik, urterik urte gibelatu diren lanen heren bat egitea, estimaturiko kostua ondokoa izanik: ZG 7.680 €, hots, urteko ZG 2.560 €.
- Bestetik, estimatzea 2018ko urtarrila bukaeran baizik eginen ez denez, azken bi urtetako lanen batz besteko kostua ZG 15.345 €-koa dela kontsideratzen da.

2018ko programa ondoko moldean zatikatzen da:

- Merkatuko prezio finkoaren arabeko lanen estimatzea:	ZG 17.905,00 €
- Adituen segimendua:	ZG 2.700,00 €
- Lanen segimendua (%11)	ZG 1.969,55 €
<b>- Hots, orotara</b>	<b>ZG 22.574,55 €</b>

Lan horien gauzatzea 2018 ko lehen hiruhilekoaren finitzerako aurreikusitua da.

Herriko Kontseilua parkeko segurtatze lanen programa (lanak, obralaritza eta estimatzea) ontzat jotzera eta DRACari (estatua) eta Departamenduari diru laguntzak eskatzera gonbidatua da.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## 4 – 2017-2018 saneamendu programa.

### 4a – Enpresen izendatzea

Devèze Jaunak adierazi du, iragan azaroaren 4ko Euskal Hirigune Elkargoko saio publikoan esku hartu zuela. Izan ere, saneamendua ez zen Kanborendako diru iturri bat, kontu orekatze eta, batez ere, kostuen menperatze iturri baizik. Urtarrilaren lehen arazo guzi hori EHEaren esku izanen da. Bere esku hartzea bi punturi buruzkoa izan zen:

Lehena, ur bolumenari buruzkoa. Kanbok, URArekin eta Baionako hiriarekin urteko 500.000m<sup>3</sup> ingurukoak ziren kuotak edo tiratzeko eskubidea izenpetu zuen, “Etienne Durruty” presio-igogailuarekin loturik zen Marieniako postutik heldu zena. Devèze Jauna EHEan gai hauetaz arduratzen den Eric Narbaitz-Jauregui Jaunarekin elkartu zen eta hitzarmena mantendua zen galdegin zion. Bolumen horiek Laxiatik eta Ursutik heldu den urari dagozkie, hau da, mendiko urari. Gure iturrietara iristen den uraren kalitatea, tratatu ondoko urarekin konparaturik, azken honen tratamendua biziki ona izanik ere, beste maila batekoa da.

Bigarren puntua uraren prezioari dagokio. Devèze Jaunak dio Kanbo lurralde baten parte dela. Elkartasunaren diskurtsoa ulertzen eta partekatzen du, baina uraren prezioan desberdintasun handiak dira, alde batetik barnealdeko herri edo hirien artean, eta bestetik, entrekostaren eta kostaldearen artean. Kanbo azken egoera honen baitan kokatzen da, zeinean hoditeria metro linealak anitez apalagoak diren. EHEak, beste sail batzuetan konpentsazio esleitzeak plantan eman dituen, Devèze jaunak ur bolumenaren eta abonatu kopuruaren arabeko gisa bereko konpentsazio esleitze sistema bat plantan eman dadin ofizialki galdegin du. Herriak uraren prezioaren arabeko ordaina jasoko luke, eta horren ondorioa herritarren zergetan aplikatzeko parada emanen luke.

2017-2018 saneamendu programari dagokionez, Devèze Jaunak dio Herriko Kontseiluko kide guziei helarazi zaien dokumentuan hartuak izan diren erabakiak oroitarazten direla. Mandatua jaso duen obralariak, herriak egitea aurreikusi zituen lan guziak aztertu ditu. Aurrekontu gainditzea dela eta, Alki gunea ez dela atxiki adierazi du. Saneamendu batzordeko kideek, oposizioko ordezkartza barne, onartu diren lanak ontzat eman zituzten. Eskaintza deialdia hiru atalendako zen.

Aiçaguerre Andereak Devèze Jaunari hitza kendu dio eta bere taldeak gai hori aipagaietatik kendua izan dadin galdegin dio, elementu guziak ez baitira xehetasunean jakinaraziak izan Prozedura Egokituko Merkatu (PEM fr. MAP) batzordea arratsaldean berean bildu baita. 700.000 €-ko merkatua dela erran eta gaia aipagaietatik kendua izateko galdea berretsi du.

Devèze Jauna biziki harrিতua da galde horrekin, Aiçaguerre Andereak iragan ostiraleko PEM batzordeko bilkuran parte hartu baitzuen eta hartan batzorde hori egun biltzea ontzat jo. Devèze Jaunak bilkura 16:45ean izatea ahalbidetu du, hau da, Aiçaguerre Anderea Kanboko herriko etxera arribatzeko parada ematen dion tenore berean.

Aiçaguerre Andereak hitz horiek baieztatzen ditu, baina batzordeari dokumentuak ez zirela epeen barnean jasoak izan adierazi ziola dio, beraz bere taldeak gaiaren kentzea galdegiten du. Bacardatz Jaunak arratsaldeko batzordean parte hartu ahal izan badu ere, sentitzen du baina barne araudiak dio, 3.500 biztanle baino gehiagoko herriendako, dokumentuak epe baten barnean helarazi behar direla, berrikusteko ahala ukateko gisan. Zehazten duenez, batzordea kontseilua baino hiru oren lehenago baizik ez da bildu.

Devèze Jaunak ihardetsi dio aitzineko asteko PEM batzordeko bilkuran parte hartu zuela. Hiru atalen gain, obralariak lehen atala berriz negoziatua izan zedin proposatu zuen, herriaren finantza interesen onetan. Aiçaguerre Anderea ados agertu zen puntu horrekin. Bere desadostasuna agertu baldin bazuen, batzordeak bere erabakia ostiralean hartu ahal izanen zuen eta ez litzateke negoziaketarik izanen eta, bide batez, milaka euro batzuk galduko liratekeen. Berriz ere, Devèze Jaunak oroitarazi du Aiçaguerre Andereak erabakia ontzat eman zuela.

Aiçaguerre Andereak gehitu du, ontzat eman zuen erabakia batzordea egun horretan biltzea izan zela. Ez zuela gaia Herriko Kontseiluan aipa zedin balioetsi. Kontseilua epeen barnean deituko balitz, heldu den astean edo hamar egunen buruan, ez legoke arazorik, bere taldeak txostena ongi aztertzeko parada ukanen luke. Ez gara fotokopiagailu baten edo inprimagailu baten erosteaz ari, Herriko Kontseiluak 700.000 €-o aurrekontua duten lanendako bozkutzen du, eta bere taldeak txostena hurbildik aztertu nahiko luke.

Obralariak, aurrekontua apaltzea ahalbidetu duen negoziaketa proposatu du. Devèze Jaunari ez zaio herriarendako gauza txarra denik iduri. Oposizioko taldeak formarekin zerikusia duen arazoa agertu nahi izatea ulertzen du, nahiz eta, haren ustez, testuaren izpiritutik urruntzen den. Batzorde hori Aiçaguerre Andereak parte hartzeko parada uka zezan gibelatu zen.

Aiçaguerre Andereak dio baietz, batzordea gibelatu zela; orain gehiengoan den taldeak nahi duena egiten duela.

Devèze Jaunak erantzun dio gezurra dela. Batzordeak Aïçaguerre Andereak beste batzordeko kideekin batera onartu duena egin duela.

Aïçaguerre Andereak oroitarazi du ontzat eman duen bakarra batzordea astelehen honetan biltzea izan dela.

Lespade Andereak gehitu du, dena haren neurrira kalkulatu izana zenez, Aïçaguerre Andereak ostiraleko PEM batzordean erran zezakeela gai hori Herriko Kontseiluko aipagaietatik kentzea nahi zuela eta ez itxoin egungo kontseilura. Gisa horretan nehor ez zen presatua izanen, domaia da.

Devèze Jaunak dio, egiazki nehor ez dela presatua izan. Bazen urgentzia bakarra 740.000 €-tik 661.000 €-ra pasa den 1. atalaren negoziaketarena zen. Prozedura osoa errespetatua izan da.

Aïçaguerre Andereak zehaztu du, PEM batzordeko bilkurarako deialdia Herriko Kontseiluaren deialdia eta gero luzatu dela. Ez da normala. Zuzenena batzordea lehenago biltzea izanen zen, Herriko Kontseilurako deialdiarekin batera dokumentu guziak ukaiteko gisan.

Devèze Jaunak erantzun dio, ederki dakiela saneamendu dagokionez nola gertatu den, lan horiek nola kokatu diren. Funtsean, zifra guziak jakinarazi zaizkio. Arratsaldeko PEM batzordeak zehaztekoa zuen zifra bakarra, 1. ataleko obren diru sumaren apaltzeari zegokion.

Aïçaguerre Andereak gehitu du, zifrak iragan osteguneko batzorde bilkuran jakinarazi zirela, eta Herriko Kontseilurako deialdia asteartean luzatu zela.

Devèze jaunak dio, epeen trinkotasunaren arazoia azaldu duela. Bozkatzea proposatu du. Oposizioko taldeak, nahi ez badu ez du bozkatuko baina Devèze Jaunak ez du aipagaietatik gaia aterako. Garrantzitsuegia da, izan ere, hola eginez gero, EHEak ez lituzke 2018ko urtarrilaren 1ean obrak beregain hartuko.

Bacardatz Jaunak zehaztasun bat ekarri du. Devèze Jaunak erran berri du negoziaketa horri herriak esker milaka euro irabazi duela. Subterra enpresaren proposamenarekin konparatuz (669.000 €), herriak 8.000 irabazi du.

Devèze Jaunak ihardetsi du, egia dela, baina prezioa kontuan hartzeaz gain baliaturiko materialaren kalitatea ere behatu behar dela. Elementuak jakinaraziak izan dira, oposizioko taldeak afera gain behera joan dadin nahi badu, libre da, legezketasun kontrolarengana jotzen ahalko du.

Devèze jaunak bere aurkezpenarekin jarraitu du. Eskaintza deialdi horrek hiru atal ditu:

1. atalean: eraikuntza, ur zikinen bideratzea eta saneamendu sarearen txaranda ireki bidezko konponketa lanak egiteko hiru enpresa dira hautagai. NEO RESEAUX, SOC eta DUHALDE sozietatea. Eskaintza interesgarriena azken honek egin du, ZG 661.214,20 €-ko kostua duena, bost hilabeteren barneko obren gauzatzerako.

2. atalean: zorroetan sartze eta hoditeria ezartze lanak egiteko bi enpresa dira hautagai. R.C.R ZG 46.152,60 €-ko zenbatekoarendako, bi hilabeteko gauzatze epearen barnean, eta SUBTERRA ZG 32.331,50 €-ko zenbatekoarendako, bi asteko gauzatze epearen barnean.

3. atalean: ur zikinen ponpatze-estazioaren eta ur zikinen birbideratze postuaren eraikuntza lanen egiteko bi enpresa dira hautagai. SOC, ZG 52.941 €-ko zenbatekoarendako eta SEIHE, obralariak proposaturiko aldaera batekin, ZG 31.894 €-ko zenbatekoarendako.

Arratsaldean berean; 16:30ean bildu den PEM batzordeak atxikitzea proposatu du:

1. atalarendako, DUHALDE enpresa, SOCATP enpresaren azpitratatzearekin, ZG 661.214,20 €-ko zenbatekoarendako.

2. atalarendako, SUBTERRA ZG 32.331,50 €-ko zenbatekoarendako

3. atalarendako, SEHIE aldaeraren arabera finkaturiko ZG 31.894 €-ko zenbatekoarendako.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Aurkako bozka Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak, Amaia Beyrie Andereak eman dute.

#### **4b – Obralaritza merkatuaren gehigarria**

Devèze Jaunak dio, atxikiriko diru kopuruaren araberrako obralariaren behin betiko ordainketa ZG 29.704,62 €-koa izanen dela, hots, %3,50ekoa. Hastapen batean, ordainketa hori ZG 24.500 €-koa zen.

Bacardatz Jaunak ohartarazi du, Herriko Kontseiluak bozkatuko dituen bi gehigarri horiek herriak eginarazi dituen azterketei buruzkoak direla. Helburua, EHEari azterketa horietan oinarrituriko obrak eginaraztea da? edo EHEra eskualdatuko direlarik beste azterketa batzuk egin beharko ote dira?

Devèze jaunak erantzun dio bi elementu badirela. Oposizioko taldeak, formak direla eta, aurkako jarrera azkarki agertu duen dosierarena, eta 2017 saneamendu programako 1.eta 2. faseena. Azken bi hauei dagokionez, operazioen abiatzea bihar arratsaldean izanen da.

Bacardatz Jauna ez da lanez ari. Gehigarriak herriak manatu dituen azterketekin lotuak dira. Aipatzen dena baino zenbateko askoz handiagoa aztertzea galdegina izan da. Azterketa lana finitua da, eta eginak izan zitezkeen lanei dagokie. Behin, atxikiriko diru kopuruekin, herriak erabakiriko lanak gauzatu ondotik, EHEak egin gabe geldituriko obren segida eginaraziko du edo azterketa horiek galtze egoeran egin dira?

Devèze Jaunak ihardetsi du, lanen egitea erabakia dela eta eginen direla, eta herriak gauzak hainbeste azeleratu baldin baditu, bi Kontseiluen artean hamaika egun baizik ez delako da. Horretan datza arrazioaren parte bat. Ttipitu ezinak diren epeak errespetatu behar dira. Haatik, 2017-2018 programako lanak, EHEak herriaren engaiamenduak derrigorrez betetzeko gisan erabaki dira.

Bacardatz Jaunak zehaztu du, herriak 700.00 €-ko diru kopurua zuela. 2017-2018 saneamendu programan, enpresak ZG 720.000 € inguruko kopuruarendako atxikiak izan dira. Obralariaren estimatzea 848.000 €-koa da. Ondorioz 128.000 €-ko lan merkatua gauzatu gabe geldituko da.



Devèze Jaunak adierazi du azterketek, Bacardatz Jaunak aipatu eremuan, lan gehiagori bide eman diotela. Lan guziak eginen dira, hau da, 800.000 €-rendako.

Bacardatz Jaunak gehituriko lan hori zein batzorderi egokituko zaion galdegin du.

Devèze jaunak erantzun dio, atzo egin izan balu Bacardatz Jaunak denboran hurbilegi dela leporatuko liokeela. Erabakia egun hartu behar da, zeren oraingoz hauek herrien esku dira.

Bacardatz Jaunak galdegin du, herriak lanak egin ondotik lan gehigarriak EHEak egin ditzan aurreikusia den.

Devèze Jaunak ihardetsi dio, herriak ahal duen guzia abian emanen duela eta egiteko geldituko denari dagokionez, EHEak herriak azaroaren 27ko eta egungo Kontseiluetan hartu engaiamenduak beregain hartu beharko dituela.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **5 – 2017 saneamendu programako 1. fasea: obralaritza merkatuaren gehigarria.**

Devèze Jaunak adierazi du, gehigarri bat edo, hobe erranik, Herriko Kontseiluak iragan saioan erabakirik behin betiko lanen araberrako obralaritzaren ordainsarien berriz kalkulatzea dela aipu. Kalkuluaren xehetasunak Herriko Kontseiluko kideei helarazirik dokumentuan direla zehaztu du.

Behin betiko diru kopuruan oinarrituriko obralariaren ordainsari prezio finkoa, 13.423,20 €-tan berriz kalkulatu da.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **6 – Saneamendu eskumenaren Euskal Hirigune Elkargorako eskualdatzea**

### **6a – Ondasun higigarri eta higiezin eskura uzte agiria.**

Devèze Jaunak oroitarazi du, iragan azaroaren 4an, EHEak bere lurralde osoan saneamendu hautuzko eskumen hartzearen inguruko deliberoa hartu zuela.

Hartara, ondasun higigarri eta higiezin guziak eskualdatu behar dira eta, partikulariki, ur araztegia, sareak, datu hartze postuak, tenpesta isurgiak, ponpak, ur ateak etab. EHEari eskualdatuko zaizkion ondasun guzi horien inbentarioa agiri bidez egin da.

Auzapez Andereari agiri horren izenpetzeko baimena ematea galdegin zaio Herriko Kontseiluari.

Etcheleku Jaunak galdegin du eskura ezartze batez edo eskualdatze batez ari garen.

Devèze Jaunak baieztatu duenez, EHEari galdegin ondoren, eskura ezartze batez ari gara. Ondorioz, herria bere ur araztegiaren jabe izaten segituko du.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **6b – 2018 urterako saneamendu zergaren tarifa.**

Devèze Jaunak adierazi du, 2017 urtearekiko saneamenduaren tarifa bera izanen dela, hau da:

- Parte finkoa: 35 €/etxe bakoitzeko (edo loturako)
- Proporziozko partea: 0.59 €/m<sup>3</sup>

Egun batez berdintzea egingen dela zehaztu du.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **7 – Aurrekontu nagusiaren 2. erabaki aldatzailea eta hilobien aurrekontu gehigarriaren 1.**

Devèze Jaunak oroitarazi du, lehen erabaki aldatzailea iragan azaroaren 27ko Kontseiluan onartu zela. Ongi daki oposizioko taldeak saio hartan THP eta finantzen gaiak zatitzea hobe litzatekeela ohartarazi zuela. Arazoa da, Altxor Publikoarendako, inbestimendu atalari dagokionez, kontuak abenduaren 15erako itxi behar dituela eta funtzionamendu atalari dagokionez abenduaren 21erako. Gaur, erabaki aldatzaile gehigarri bat bozkatu beharra da.

Aurrekontu gehigarriak separatu behar dira. Abenduaren 31n, hilobi eta kolunbarioen aurrekontuak defizita ager zezakeen, eta hori ezinezkoa den gauza da. Devèze Jaunak proposatu du, aurrekontu nagusitik hilobien aurrekontu gehigarriaren funtzionamenduari 60.000€-ko diru laguntza ematea eta kontuak orekatzea.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **8 - Inbertsio gastuen kredituak aitzinetik irekitzea.**

Devèze Jaunak oroitarazi du, inbertsioari dagokionez, finantza aldi hastapenean eta aurrekontua bozkatu aitzin xahutzeak egin ahal izateko kreditu-lerro bat ireki behar dela. Kreditu-lerro hori, aitzineko urteko aurrekontu nagusiaren %25ean finkatzen da gehienez. Lehen hiruhileko inbertsioak estaltzeko, kreditu-lerro hori 649.542 €-koa da.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **9 – Finantza publikoen zentroko alokairua: hiru urteroko berrikustea**

Devèze Jaunak alokairuaren heineratzea aipu dela adierazi du. Herriak, 2014ko urriaren 1az geroztik, hiru urte guzietz berrikusten den alokatze kontratua hitzartua du Altxor Publikoarekin.

Bilakaera handirik jasan ez duen eraikuntzako indizearen arabera, laneko bizitegiaren alokairuaren zenbatekoa urteko 5.272.15€-koa da eta bulegoena urteko 5.113 €-koa. Hots, urteko 10.385.15 €-koa, orain arte 10.285 €-koa zelarik.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **10 – Egoitzak Departamenduko Elkartasun Etxearen eskura ezartzearen hitzarmenaren berritzea.**

Devèze Jaunak, herriak, 2002az geroztik Departamenduko Elkartasun Etxeari egoitzak eskura ezartzeko hitzarmena duela oroitarazi du. Hitzarmen hori bururatzera doanez, honen berritzea komeni da. Ordainsariaren urteko zenbatekoa 20.261 €-tan finkatu da. 2016ean alokairua 20.161.32 €-koa zen.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **11 – St Joseph parkearen argizatzea: diru laguntza eskaria.**

Goytino Jaunak adierazi du St Joseph parkearen argizatzea dela gaia. Parke horretan hobekuntza lan batzuk eginak izan baitira, jadanik, pasabideetan eta joko eremuan, azken honek hobekuntza nabarmenak izan dituelarik.

Delibero honen helburua, egina izan den azterketaren ondotik, lanen kostua ebaluatu ahal izatea da eta, alde batetik, DETR gisa Estatuari eta bestetik, Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuari (PAES, fr. SDEPA) diru laguntzak galdegitea. Obren zenbatekoaren estimatzea ZG 81.500 €-koa da.

Bacardatz Jaunak ohartarazi du, gehiengoan den taldeak aurkezten duen proiektu guziekin gertatzen den bezala, lan batzordea ez dela sekulan proiektuez mintzatu ahal izateko biltzen. Dossier hori lan batzordean ez aipatu izanaren arrazoia zein den galdegin du.

Goytino Jaunak ihardetsi dio afera ez dela lanen osotasunari buruz erabakitzea, Estatuari eta PAESari, lanen zenbatekoaren estimatze baten arabera, diru laguntzen galdegitea ontzat ematea baizik.

Bacardatz Jaunak dio lan horiek bulego tekniko batek zifratu lituzkeela. Ondorioz galderak pausatuko ditu.

Eremuen argiztazeari, tresnen etenaldian ezartzeari dagokionez, energia aurrezteko eremuak banatu dira %20ko argiztatzearekin. Deusetarako balio ez duten eremu batzuk goizeko biak arte %100ean argiztatuak dira. Aparkalekuan egin bezala, aterabide tekniko bat atzeman

zitekeen, eremu horretan jendea ibiltzen delarik osotasunean argi dezaketen radar bidez. Ez du uste gaueko hamarrak edo hamaikak ondotik jende anitz ibiltzen denik eremu horretan.

Goytinok Jaunak erantzun dio, azterketa egin duen bulego teknikoak proposaturiko aukerak direla. Aurreikusia den materialari buruzko dokumentazioa begiratzen duelarik, goizago egin daitezkeen itzaltze gisako edo denboran apaldu daitezkeen pizteen gisako beste aukera batzuk posible dira. %100ean argiztatuko litzatekeela errana den karrika bat ere bada hortik hurbil. Herriak gai hori berriz hartuko du, ez baita herriko beste guneetan egiten den deus desberdinik egiteko asmorik, zeinetan argiztatzearen apaltzea bi argitatik bat itzaliz egiten den. Argiztatze berri hauen abantaila LED bidez egiten direla da eta, herriak hautatu duen bezala, argitasuna apaltzeko parada ematen dutela.

Bacardatz Jaunak zehaztu du azalpen tekniko guzi horiek lan batzordean eztabaida zitezkeela. Diru laguntzak galdeginen dira, ondotik proiektua abian emanen da, eta proiektua ez da lan batzordean aurkeztuko. Enpresak kontsultatu aitzin, material motak, LED motak hautatu beharko dira. Dosierra aitzinetik lan batzordean ez aztertu izana domaia dela deritzo. Bacardatz Jaunak gehitu du, jitekoak diren lanei buruzko auzo bilkura bat izan zela abenduaren leian. Auzo horren argiztatzeari buruzko galdera bat pausatua izan zen eta gaur egun herrian argiztatze publikorako dirurik ez zela erantzun zitzaion. St Joseph parkea argiztatu eta argiztatze publikoa gauzatzearen artean auzoetako afera ere agertzen da.

Bardin Jaunak ihardetsi dio, seguraz ere ez duela usu bere autoa St Joseph parkean aparkatzen eta hiri barnean uzten duela. Urte hastapenetik herriko etxeko eta Kanbo erdiguneko aparkalekuak eremu urdinean dira. Kanbo erdian lan egiten dutenak St Joseph parkean aparkatzen dira. Memento honetan, arratsaldeko bostetatik goiti iluna da. Emazte anitzek erran du, gauez, St Joseph parkea ez zela biziki egoera segurrean. Ohar horiek kontuan hartu dira eta, autoa aparkaleku horretan utzi duten jendea segurtasun osoz ibil dadin, herriak St Joseph parkea argiztatzeko erabakia hartu du.

Bardin Jaunak zehaztu du, Delbarre auzoa jadanik argiztatua dela, auzo horretan ez da itzalgunerik.

Bacardatz Jaunak zehaztu du, arratsaldeko bostetan iluna dela diolarik Bardin Jaunarekin ados dela, baina hornituriko planoetan egiaztatu duela oihan erdiko ibilbideari dagokion liranjazko parteak goizeko biak arte %100ean piztuak direla agertzen dela.

Bardin Jaunak ihardetsi dio ez dela hola izanen.

Bacardatz Jaunak dio hornituriko planoetan hori agertzen dela.

Bardin Jaunak gehitu du, ez dela neholaz ere argiztatze hori goizeko biak arte mantenduko.

Bacardatz Jaunak aurkezturik txostenean elementu okerrak edo baliogarriak ez direnak egiaztatu ditu. Oposizioko taldeak gaia aztertu du baina ez da deus ere zehaztua.

Goytino Jaunak berriz ere oroitarazi du proposamen soil bat dela eta Bacardatz Jaunak aipatu dituen puntu guziak kontuan hartu dituela. Hala da, aukera hori ez da atxikia izanen.

Bacardatz Jaunak Delbarre lotizamenduko bilkura aipatzen du berriz, eta bereziki berriz egina izanen den estaldura berriak. Lan horiek ez dira jadanik argiztatua den eremuan kokatuak. Biztanleek, estaldura berriz egin aitzin argiztatzeko paradarik ez zenez galdegin

dute. Horrek, bi edo hiru urteren buruan argizatzerako txarandak egiteko estaldura haustea saihestuko luke, hor ere ilun baita arratsaldeko bostetan.

Magis Jaunak zehaztu du, Delbarre lotizamenduko bilkuran pausatua izan zen galdera zein argiztatze masta ezarriko zen izan zela. Hartan erantzun zen, gaur egun arte argiztatzea ez dela aztertua izan. Ez da sekulan argizatzerik ez zela izanen erran. Lurperatzeari dagokionez, argindar harien lurperatzerik ez zela eginen erran zen, horrek kostu bat ekartzen duelako. Ez da argizatzerik ez zela izanen erran.

Bacardatz Jaunak galdegin du ea abian emanen diren lanak aitzin argizatzerik ezarriko zen.

Magis Jaunak erantzun dio, auzo bilkura horretan zirrimarra bat aurkeztu zela, proiektu horri buruzko jendearen onarpena ukaiteko gisan.

Bacardatz Jaunak dio auzo batzordean ontzat eman den proiektua aurkeztu dela.

Magis Jaunak ezezkoarekin erantzun dio. Batzordean obralari batekin azterketa abian ezartzearen printzipioa bozkatu zela. Batzordean nahi ziren azterketen inguruko printzipioa landu da. Obralariak herriaren nahia argi eta garbi idatzi du eta proiektu hori da biztanleei aurkeztu zaiena. Ez da osoki loturiko dossier bat aurkezteko neholako asmorik. Egungo asmoa da, egiazaturiko erreakzioak kontuan harturik, proiektu hori berriz lantzea behin betiko proiektu batera arribatzeko. Baina bilkuretan ez da argizatzerik aipatu.

Bacardatz Jaunak gehitu du batzordeekin eta auzoekin jarrera bera ukaitea on litzatekeela. Proiektuak batzordeetan aipatzeak Kontseiluan aurkeztu aitzin aztertzea ahalbidetuko luke.

Magis Jaunak ados dela ihardetsi dio, salbu, berari dagokionez, bide obren batzordean bide obrei buruzkoak aurkezten direla eta ez argiztatze publikoa. Bide obren batzordeak dossier horiek aurkez ditzan denak ados baldin badira, hark ez du arazorik ikusten.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Bacardatz Jaunak zehaztu du bere taldeak ez duela bozkatzeko ez baititu proiektua bozkatzeko elementu guziak.

Gehiengoak onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aiçaguerre Andereak, Amaia Beyrie Andereak.

## **12 – Jean Rumeau etorbideko bide zabaltzea: lursailen erostearen erregulartzea eta eremu publikorako eskualdatzea.**

Magis Jaunak azaldu du, Herriko Kontseiluari euro sinbolikoaren truk katastroko 24 m<sup>2</sup>-ko AV 263 eta m<sup>2</sup>-ko AV lursailak erosteko baimena Auzapez Andereari ematea galdegina zaiola.

Erregulartze bat baizik ez da, izan ere badira urte batzuk hondakinak sailkatzeko egoitzak hor kokatuak direla.

AV 266 lursaila Orange sozietatearena da eta AV 263 TILAC Anderearena. Herriaren faboretan egitekoa den legatze horrekin batera, Orange sozietateak lursail trukaketa bat egin behar du TILLAC Anderearekin. Ondorioz, gauzatze epeak laburtzeko gisan, notarioak proposatu du AV 63 lursailaren eta TILLAC anderearen beste lursail baten trukaketa Orange sozietatearekin egitea, azken honek AV 63 lursaila herriari legatzen baitio oldar berean.

Jadanik eginak izan diren lanak izanki, lursaila eremu publikoan sartzeko inkesta publikorik ez da beharrezkoa. Bere faboretan egiten den legatzeari dagozkion notario aktaren fresak herriak hartuko ditu beregain.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

### **13 – Eskura ezartze hitzarmena Enedisekin.**

Goytino Jaunak zehaztu du, Enedisek, Pangeo sozietatearen bidez, bere sarearen hobekuntza gauzatu nahi duela. Gachanto Borda deritzon lekuko katastroko B 1702 eta B 1716 herriko lursailetan armairu elektriko bat ezartzeko baimena galdegin du.

Pangeo sozietateak zehaztu du, lan horiek “banatze publikoko argindar sarearen banatze eta hornidura kalitatearen hobetzearen baitan” eginen direla. Enedis enpresak goi-tentsioko harien lurperatze lanak eginen ditu.

Egiazki, operazioa, sare bakarra zena banatu eta segurtatzean datza, parte batean arazorik izanez gero, isolatzeko parada ukan eta gaineratekoak martxan izaten segitzeko gisan.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Bacardatz jaunak ez du bozkan parte hartu.

Aho batez onartua.

### **14 – Hitzarmena Pirinio Atlantikoko Departamenduarekin et Errobi kolegioarekin.**

Noblia Andereak oroitarazi du, Herriko Kontseiluak, 2015eko irailaren 21eko delibero bidez, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina AGAZ (frantsesez ALSH) eskumenaren eskualdatzea onartu zuela.

2005az geroztik, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eskola ostalaritza eskumenaren jabe da eta, hiru aldeko hitzarmenen baitan, Errobi Kolegioari “kanpoko erabiltzaileei”, kanpoko talde edo antolakundeei, bazkariak emateko baimena onartzen dio, horretarako gaitasuna ukanez gero.

AGAZak, ostalaritza zerbitzu hori asteazken eguerdian eskaintzen die aisialdi zentroan diren haurrei. Urte guzietan hiru aldeko hitzarmen bat izenpetzen da Departamenduarekin.

2017ko azaroaren 27an bildu zen Batzorde iraunkorraren eta 2017ko urriaren 26ko Errobi Kolegioko Administrazio Kontseiluaren delibero bidez, 2018an “kanpoko erabiltzaileei” bazkari ematea onartu da.

2017ko azaroaren 24ko datadun gutunean, Departamenduak, kanpoko erabiltzaileendako bazkari emate hitzarmen horren bidez 2018an zerbitzu horrekin segi dezan proposatu dio Herriari.

Ondorioz, asteazkenetan AGAZa baliatzen duten haurren onetan, Auzapez andereari aipatu hiru aldeko hitzarmena Departamenduarekin eta Errobi Kolegioarekin izenpetzeko baimena eman diezaion proposatu zaio Herriko Kontseiluari.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **15 – Oihanen Erakunde Nazionala: 2018 mozte oinarria.**

Etchelecu Jaunak adierazi du, Oihanen Erakunde Nazionalak (OEN - frantsesez ONF) urriaren 9ko data duen gutuna helarazi diola Auzapez Andereari 2018ko mozte oinarriaren baitan argitzekoak diren hiru eremuren sartzea proposatuz (3,48ha, 3,19 ha eta 4,53 ha). OENak, ustiatzeko baimena esleitu ahal izateko, deliberoa hartua izan dadin galdegin du.

Magis jaunak galdegin du, ea zeri dagozkien kudeaketa unitate horiek.

Etcheleku jaunak erantzun dio ez duela xehetasun gehiago. Oihanen gainbegiratze osoa OENak egiten duela baina ez dakiela zein lursailez ari den.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **16 – Euskal Hirigune Elkargoa: Eskualdaturiko Kargen Estimatzeko Tokiko Batzordearen txostenen onartzea.**

Devèze Jaunak adierazi du, 1. txostena, zuzenbide arrunteko konpentsatze esleitzeak finkatzea ahalbidetzen duten oinarrizko konpentsatze esleitzeen eta kargen estimatzeko eskualdatzearen zenbatekoari dagokiola.

Eskumenak EHEak hartu dituen heinean, bereziki hizkuntzari dagokionez, herriak jasotzen dituen konpentsatzean aldaketak izan dira. EHEak kalkuluak berriz egin ditu eta Kanborendako ondorioa 10.468 €-ko konpentsatze esleitzearen murrizketa dela adierazi du.

Herriko Kontseiluari 1. txostena ontzat ematea galdegina zaio.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

2. txostena, 2017ko otsailaren 4ko Elkargoko Kontseiluaren delibero bidez onartu zen finantza eta zerga hitzarmeneko printzipioetako 7. puntuan (etxe zergen neutralizatzeko mekanismoak) aurreikusiriko konpentsatze esleitzeen egokitzeari dagokio. Kanborendako egokitze osoa 10.992 €-ko murrizketa da.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **17 – Uraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoa: 2016 urteko txostena.**

Devèze Jaunak adierazi du txosten horiek 2016ko abenduaren 5ean aurkeztu zirela.

URA sindikatuak aurkezturiko 2016 urterako ur edangarriaren zerbitzuaren prezio eta kalitateari buruzko txostena aurkeztu du. 2016an, herriak 3.559 kontagailu zituen, aitzineko urtean 3.524 zituelarik. Ur edangarriaren prezioa, 2015ean 1,77 € m<sup>3</sup>-koa izatetik 2016an 1,79€ m<sup>3</sup>-koa izatera pasa da.

2016 urte horren gertaera azpimarragarriak: URA sindikatua tokikako egiazaturiko ur galtzeen neutralizatze lanari lotu zitzaion, izan ere, 2013 urtean, errendimendua %75ekoa zen, egun %85ekoa delarik.

Devèze Jaunak, 2016 urterako saneamenduaren prezioari eta kalitateari buruzko txostena aurkeztu du. Abonatuaren kopurua hogeita hamabostez emendatu da. M<sup>3</sup>-aren prezioa 4,07 €-koa da (zergak barne), ur edangarriarena 1,79 €-koa eta talde saneamenduarena 2,28 €-koa.

Bacardatz Jaunak 2015etik 2016ra artean hogeita hamabost kontagailu gehiago badela eta garai berean %10eko emendatzea dela ohartarazi du.

Magis Jaunak ihardetsi dio fakturatze hori URAk kudeatzen duen lurraldeari dagokiola eta ez Kanbori.

Bacardatz Jaunak azpimarratu du URAk Kanboren kontsumoa zein den jakinaraz zezakeela, lurraldearenak ez duela deus ere ekartzen.

Magis Jaunak dio, bi taulen arteko xehetasunen gurutzatzea egin behar dela. Saneamenduaren atalean Kanbok kontsumituriko partea agertzen da, 500.000 m<sup>3</sup> urekoa dena.

Bacardatz Jaunak zehaztu du fakturaturiko kontsumoa dela hori. Sarean ur galtzean badira behar bada.

Devèze jaunak oroitarazi dio, hala ere ur galtzeak anitez apaldu direla.

Bardin Jaunak gehitu du, kontsumoa aroaren arabera ere aldakorra dela. Agorrilean aro ederra baldin bada, jendeak baratzeak ureztatzen ditu eta, alderantzizko egoeran, kontsumoa apalagoa izanen da.

Bacardatz Jaunaren ustez, kontsumoak, baratze ureztatzearekin baino biztanleekin lotura gehiago du.

Devèze Jaunak adierazi du, honako txostena URAREN analisia osoaren laburpena baizik ez dela.

Bacardatz Jaunak, agertzen diren xehetasunen arabera, abonatu gehiago izanez fakturatzearen bilakaerarik ba ote zen ulertzen entseatu nahi duela dio.

Bardin Jaunak, saneamendu txosteneko 3. orrialdea begiratzeko gomendatu dio Bacardatz Jaunari. Bere galderarendako arrapostua atzemanen duela.



## 18 – Edmond Rostand erakustokiko bildumen egiaztatze agiria.

Pontacq Andereak oroitarazi du, Edmond Rostand erakustokiak “Frantziako Erakustoki” labela duela. 2008an ireki zen Paul Perromatekin hitzartu zen kontratu bidez eta, 2011z geroztik, Labat Anderearekin. Herriak, honako agiria Kultura Ministeriora helarazteko betebeharra du. Agiriak, baliaturiko metodoa eta egiaztatzeak irekiriko eremuak, bereziki ikusi gabeko, eskas edo suntsituriko objektuen zerrenda, deskribatzen ditu.

Egiaztatzea, objektuetatik abiatu bi arrazoiengatik egin da:

- Inbentario erregistroan ez zen agertzen edo objektuak lana aitzinatu ahala atzeman dira,
- Objektu kopuru handia ez zen inbentariatua.

Egiaztatze kanpainak kokapenaren arabera antolatzen dira (erakusketa gelak, erreserbarako apalak). Egiaztatze operazio batek ondoko operazioak hartzen ditu bere baitan:

- objektuaren egiaztatze fisikoa
- inbentarioarekin konparatzea.
- inbentario fitxaren eta egiaztatzearen biltze informatizatua Actimuseo programan.
- objektuaren markatzea, behar izanez gero.
- objektuaren zaharberitzea
- argazkitan hartzea eta argazkia informatizaturiko fototekan sartzea.
- jadanik Actimuseon sartuak ez diren objektuendako fitxa informatikoak sortzen dira.
- ofizialki inbentario liburuan diren objektuak soilik ontzat eman dira. Gaineratekoak egiaztatze ondokoaren baitan tratatuko dira.
- objektu batzuek zenbaki bikoitza edo hirukoitza dute. Zenbaki egokiena atxiki eta besteak ezabatzea proposatzen da.
- objektu batzuk behar gabe zerrendatuak dira, ezabatzea proposatzen da.

Egiaztatze eta inbentario operazioak Actimuseo programaren bidez eginak dira. Datuak tokiko ordenagailu batean atxikiak dira. Babeskopiak DBDan eginak eta eraikinetik kanpo biltegiatuak dira, molde segurrean.

Egiaztatze-inbentarioa 2008an eta 2017an egin izan da. Kontserbatzaileak Amis d’Arnaga elkarteko nahiantekin lan egin du.

### Egiaztatzearen emaitza

Ikusiriko objektuak	5.433 zeinetarik Inbentario erregistroa eta jabetzeak: 535 Argazki erregistroa: 797 Liburutegia: 1.250 Inbentariatu gabeko objektuak: 2.851
Berriz atzeman ez diren objektuak	Inbentario erregistroa: 60 Argazki erregistroa: 415 Liburutegiko erregistroa: 44
Ezabaketarako proposaturiko objektuak	17 kopia 8 behar gabeko zerrendatze 1993an marraturiko 5 objektu ontzat emateko 1993an marraturiko Fegiaztatzeobjektu 1 ezeztatzekoa
Harturiko argazkiak	5.017

Hamar urteroko egiaztatzea eginik, egiaztatze ondokoa abian emanen da.

Inbentariatu gabeko objektuak berriz aztertuko dira.

Estatutu juridikoa Kanboko jabetza gisa argiki finkatua dutenak gibelera begira inbentariatuko dira.

Argazkien estatutua aztertuko da. Argazki batzuk, jatorrizko argazkiak, izenpetuak... ondare balio handia agertzen dutenak batzorde zientifikoari aurkeztuko zaizkio, erakustokiko inbentario ofizialean sartuak izan daitezzen.

Desmarta bera gauzatuko da liburutegiko liburu batzuekin, familiaren jatorrizko liburuekin, izenpeturiko liburuekin...

Herriko Kontseilua honako agiria ontzat ematera eta Auzapez Andereari honi dagokion dokumentu oro izenpetzeko baimena ematera deitua da.

Hiriart-Urruty andereak Labat Andereak lan hori bere egitekoaren baitan burutu duen eta ordainsari gehigarriak jaso duen galdegin du.

Pontacq Andereak ihardetsi dio lan hori bere egitekoen baitan dela.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **19 – Langileak.**

### **19a – Herriko langile baten EHERako lekualdatzea eta langile horren eskura uztea**

Devèze Jaunak, EHERako saneamendu eskumenaren eskualdatzearen baitan, zerbitzu honi osoki edo partzialki lotuak diren lurraldeko langileak lekualdatzea ere posible dela oroitarazi du. EHEan sartzeko xedea agertu duen Zerbitzu teknikoetako Zuzendariaren kasua da hori. Galdea interesatuaren eskutik baina baita EHEaren eskutik ere heldu da. Gure Zerbitzu teknikoetako Zuzendariak gainera, jadanik EHEko erreferentearekin lan egin du. Bestalde, EHEak beharrak ditu gai horretan, Garazi-Baigorri eremuan bereziki saneamendu anitz kudeatzen baitu eta ez bortxaz kolektiboa, kudeaketa partikular anitz baizik, partikularki, herri ttipi anitzetan. Ondorioz uraren zerbitzua azkarki egituratzea dagokio. EHEak, herriari, uraren kudeaketarako gaitasuna duen pertsona bat kontratatzeke duen interesa azaldu dio.

Herriari, galde horri bat-batean onartzea zaila gertatu zaio, izan ere, gure herriarendako, giza inbertsio handia eta gertatu berria zen, zerbitzu teknikoetako zuzendaria aldatu berri baitzen.

Hala ere, Kanboko herriak bere adostasuna agertu du eta langile horren EHERako lekualdatze prozedura gauzatzera engaiatu da. Abenduaren 7an, hautetsien ordezkariak eta langileen biltzarreko ordezkariak barne hartu zituen batzorde teknikoa bildu zen. Batzorde horrek aho bateko aldeko bozka eman zuen. Egun ontzat ematen baldin baduzue, langile lekualdatzea 2018 urtarrilaren 1etik aitzina indarrean izanen da.

Hala ere, gure herriak operazio hori molde progresiboan gauzatu dadin kasu egin du. Ondorioz, Kanbo herriaren onerako, interesatuaren EHERako lekualdatzea ondoko moldean egin dadin proposatu du:

- Bere lan denboraren %60, 2018ko otsailaren 1etik aitzina,
- Bere lan denboraren %50, 2018ko ekainaren 30etik aitzina.

Beharrezkoa den denbora zaindu behar da, alde batetik ordezkari bat xerkatu ahal izateko eta, bestalde, 2018ko lehen urte erdiko azken bi edo hiru hilabeteetan gutieneko lana segurtatzeko gisan.

Horrenbestez, zerbitzu teknikoetako postua ez da hetsia izan, lekualdatze soila proposatu da.

Bacardatz Jaunak, gaur egun postu horren aktibitatea ehunekotan zenbatekoa den galdegin du.

Devèze Jaunak erantzun dio, gaur egun saneamenduko aktibitatea biziki handia dela. Ohartarazi du, ala ere, langileek ez dutela lanean iraganiko denbora markatzerik baina herriak, SPANCaren zerbitzua bermatzeko, denbora erdiko postua sortu zuela.

Devèze Jaunak ez du lanean emaniko denboraren banaketa zehatza ezagutzen baina bistakoa da gaur egungo Zerbitzu teknikoetako Zuzendaritza postuan, langile horrek lanean iragaten duen lan denbora guziaz ez dagokiola saneamenduari.

Bacardatz Jaunak egiaztatu du, langile hori lekualdatu dela eta ondotik herriak postu berri bat sortu duela. Kanbo herriarendako ez du eragin handiegirik, ez bada postu horretako heldu den titularrak denbora gehiago ukanen duela alde teknikoari lotzeko.

Devèze Jaunak baiezkoarekin ihardetsi dio eta Kanbo herriak Zerbitzu teknikoetako Zuzendari bat beharrezkoa duela gehitu du. Profil berriaren xerkatze horretan, herriak ez du gehiago ura eta saneamendu gaitasuna galdegin beharko. Azken finean, operazio horrekin, herriak ez luke gehiegi galdu behar, eta ez diru kontuetan soilik.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **19b – Enplegu sortzea.**

Devèze Jaunak adierazi du, langile baten lekualdatzea izan denez, zerbitzu teknikoetako zuzendari posturako langile baten kontratatze helburuarekin, 2018ko urtarrilaren 1erako enplegu baten sortzeari buruzko deliberoa hartzea komeni dela, zeina lau gradutan irekiko den:

- Ingeniaria (A saila)
- 1. mailako teknikari nagusia (B saila)
- 2. mailako teknikari nagusia (B saila)
- Teknikaria (B saila)

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## 20 – Auzapezaren erabakien jakinarazteak.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen eta 2017ko Herriko Kontseiluaren deliberoaren arabera, Devèze Jaunak 2017ko azaroaren 12tik 25era hilerriko kontzesio esleitzeei eta berriz hartzei dagozkion erabakiak jakinarazi ditu:

- 15 urterako kontzesioen erostea (lurrez estalia): 1  
Hilobi kontzesioek sortzen duten irabaziak 220 €-koak dira.

## 21 – Orotarik

- Devèze Jaunak Herriko Kontseilua informatu du, 2017ko abenduaren 15ean, ostiralez, 19:30ean Stop Mines EH elkartearen biltzar nagusia iraganen dela Uztaritzeko Lapurdi gelan. “Denei irekia, bilan azkar bat eginen dugu eta, batez ere, ekintza baten aurkezpena eginen dizuegu: alerta zenbaki baten planta ematea. Balizko Estatuaren erantzun txar batendako prestatu behar baitugu eta horri aitzina hartu!”
- Helduenen bazkaria, 2017ko abenduaren 13an iraganen da Jantegin.
- Langileen haurrendako Eguberriko besta 2016ko abenduaren 16an, larunbatez, 17:00etan iraganen da, Herriko Kontseiluko gelan.
- Agiantzen zeremonia 2018ko urtarrilaren 7an, igandez, iraganen da 11:00etan.
- Devèze Jaunak ezin du larunbatean gertatu dena aipatu gabe utzi eta Pariseko manifestaldiaren mezuaz eta parte ahal izan dutenen desmartxaz kontent agertu da. Bake eta berradiskidetze mezua, zeinarekin dena poztu gaitezkeen.
- Bardin Jaunak, THParen aurkezpenean Basaburuko 5,93 ha-k direla eta buruz Hiriart-Urruty Andereak pausaturiko galdera bati arrapostua ekartzen dio. Erantzuna aurkezpen txosteneko 94. orrialdean aurkitzen da. Auzo hori Beaulieu, Paskaleku azpia, Termak eta Halteko bidea inguruan kokatua da. Auzo horren hedadura osoa 651,35 ha-koa da. Betetzeak (potentzialki eraikigarri dena), 4,53 ha-koa da eta aztikatzeak (banatu daitezkeen lursailak), 1,40 ha-koak dira, hau da, 5;93 ha.

Hiriart-Urruty Andereak ohartarazi du, iragan Herriko Kontseiluan erran zuen bezala, horrek, hala ere, lur eraikigarrien %25 ordezkatzen duela. Txosten horretako 308. orrialdeko xehetasunen arabera: Kanbo Beherea: 1:06 ha; Basaburua: 5,93 ha; Haurtzain: 1,22 ha; Zazpi Haritzak: 0,42 ha eta, agertzen denez, herrian 10 ha, hots abantzu 19 ha eskuragarri.

Bardin Jaunak erantzun dio gune horiek eraikitze eremuen baitan direla. Horrek ez du eraikigarri denaren %5a baizik ordezkatzen.

Hiriart-Urruty Andereak gehitu du, 20ha horiek potentzialki eraikigarri direla.

Bardin Jaunak ihardetsi dio, Kanboko eraikiriko hedaduraren %5a baizik ez dela.

Hiriart-Urruty Andereak 308. orrialdea irakurtzeko gomendatu dio.

Bardin Jaunak erantzun dio, ez dituela txosten horretako zenbaki guziak gogoan.

- Pontacq Andereak adierazi du, Arnagan zeremonia bat iragan dela arratsaldean, Arnagak eskuratu duen Turismo Kalitate Labelaren kariatara. Sari hori departamendu osoa hartzen du kontuan eta hamar saritu izan dira.
- Bardin Jauna THPeke gaia aipu du berriz. Eraikigarri diren guneeek 309 ha ordezkatzeko dutela adierazi du.

Hiriart-Urruty Andereak ihardetsi dio, THP berriaren baitan ez dela 309ha potentzialki eraikigarri direnak.

Bardin Jaunak zehaztu du etorkizuneko eremuek 21,35 ha ordezkatzeko dutela.

Hiriart-Urruty Andereak gehitu du, 5ha kenduz horrek, guti gira behera, %25 ordezkatzeko duela.

Bardin Jauna ados agertu da.

Devèze Jaunak Herriko Kontseiluko saioa finitutzat jo du 20:40ean.